a) Kanpamentuak (eguneko).....20,20 €	a) Campamentos (por día).....20,20 €

b) 3-6 urte bitartekoentzat udaleku irekiak (eguneko) .....4,05 €	b) Colonias abiertas para 3-6 años (por día)... 4,05 €
c) 6-12 urte bitartekoentzat udaleku irekiak (eguneko) .....5,05 €	c) Colonias abiertas para 6-12 años (por día)5,05 €
UDAL LUDOTEKAK:	LUDOTECAS MUNICIPALES:
Urtarriletik ekainera.....30,30 €	Desde enero a junio.....30,30 €
2016/2017 ikasturte osoa .....40,40 €	Curso 2016/2017 completo.....40,40 €
Irailetik abendura.....20,20 €	Desde septiembre a diciembre.....20,20 €
<u>II.- HOBARIAK.</u>	<u>II.- BONIFICACIONES.</u>
<u>2. artikulua.-</u> Hobariak ondorengo hauek izango dira:	<u>Artículo 2.-</u> Las bonificaciones serán como sigue:
a) Familia ugariak:.....% 50	a) Familias numerosas:.....50%
b) seme/alaba bat baino gehiagoren izena ematea: % 20	b) Inscripción de más de un hijo o hija:.....20%
<u>III. KUDEAKETA ARAUAK.</u>	<u>III. NORMAS GESTIÓN.</u>
<u>3. artikulua.</u>	<u>Artículo 3.</u>
Matrikula formalizatzen den une berean ulertuko da ordainarazpena sortu dela. Matrikulatu ahal izateko nahitaezko baldintza izango da aurreko kurtsoko tasa ordaindurik izatea.	La exacción se considerará devengada en el momento de formalizarse la matrícula. Será condición inexcusable para matricularse el haber satisfecho la tasa del curso anterior.
<u>4. artikulua.</u>	<u>Artículo 4.</u>
Udal Ludoteketan ikasturte osoan zehar matrikulatu ahal izango da ludoteketan bertan. "Udako Oporrak " programan parte hartu ahal izateko, Udalak	Durante todo el curso podrá matricularse en las mismas ludotecas. Para poder participar en el programa "Udako Oporrak ", previamente se abrirá un

adierazitako lekuan aurretik izena emateko aldia zabalduko da.	periodo de inscripción que se realizará en el lugar indicado en el Ayuntamiento.
Izen emateko edo inskribatzeko unean bertan ordaindu beharko dira prezioak.	Los precios se deben abonar en el momento de la matriculación o inscripción.
Ekintza desberdinetan erabilitako materiala ezarritako arauen arabera ordainduko da.	El abono del material utilizado en las deferentes actividades se realizará de acuerdo a las normas que se establezcan.
<u>5. artikulua.</u>	<u>Artículo 5.</u>
Ordainagiria bakarra eta hainbana ezina izango da kontzeptu bakoitzerako.	El recibo será único e improrrrateable por cada concepto.
<u>6. artikulua.</u>	<u>Artículo 6.</u>
Indargabetu egingo da.	Se deroga

**4. Erreterria IrabaziZ eta EHBildu udal taldeek aurkeztutako mozioa Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda burdinbide proiektu estrategikoa dela-eta.**

Ondoko mozioa irakurri dute:

**"JUSTIFIKAZIOA**

Oraingoz Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda burdinbide-zatiaren obra egiteri uko egin dio eskuduntza duen erakundeak. Honek zuzen zuzenean Erreterriako bizilagunentzat euren etxeen artetik igarotzen den burdinbide batekin elkarbizitzera behartzen ditu denbora luzeagoz; horrek dakarren eragozpen eta kalteekin zarata, bibrazio,

**4. Moción presentada por Erreterria Irabaziz y EHBildu en torno al proyecto estratégico sobre el ferrocarril Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda.**

Se da lectura a la siguiente moción:

**"JUSTIFICACIÓN**

El organismo que ostenta la competencia para realizar la obra de la parte correspondiente al ferrocarril Altza-Pasai-Galtzaraborda de momento ha renunciado a dicha obra. Ello obliga a los y a las vecinas que tengan que seguir conviviendo durante más tiempo con el tren pasando entre sus viviendas, con las correspondientes molestias, perjuicios,



oztopo arkitektoniko, segurtasun eta oro har, bizikalitatearen ikuspuntutik.

Hau gutxi ez eta soterratzeko 70 milioi inguruko aurrekontua duen obra-proiektua idatzita badago ere, egun ez du Eusko Jaurlaritzaren finantziakompromisorik. Are gehiago, azkenean Eusko Jaurlaritzak 200 milioi euro Donostia erdiguneko metro-pasantea egiteko erabiltzen baditu, proiektu hori urteetarako hipotekatuta geratuko da. Arrisku hau ikusita, ezinbestekoa da aldarrikatzea Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda burdinbidea premia eta lehenetsun handiagoa duen proiektua dela metro-pasantearekin alderatuta. Logika hutsa da eta arrazoiak bistakoak dira:

- Arrazoi geometrikoak: Donostiako erdiguneko metro-pasantearen kasuan ez bezala, inongo desbideratzerik gabe lor daitekeela obren ejekuzioa.
- Finantziakompromisoak: kostua metro-pasantearena baino askoz txikiagoa litzateke; 70 milioi euro 200 milioi euroren alboan.
- Bizitza-kalitatea: Errenteriako arrisku handiko bide-zati bat da, eta lehen mailako arkitektura-oztopo bat; zarata, iluntasuna eta segurtasun-falta sortzen duena hirigunean.
- Irigarritasun globala: EuskoTrenen sarea hegoalderantz mugitzean eta Renfeko

ruidos, vibraciones, obstáculos arquitectónicos y problemas seguridad que acarrear, en general, desde un punto de vista de calidad de vida.

Por si fuera poco y aunque esté redactado el proyecto de obra de soterramiento con un presupuesto de alrededor de 70 millones de euros, actualmente no posee un compromiso de financiación del Gobierno Vasco. Y, aún más, si al final el Gobierno Vasco gasta 200 millones de euros para realizar la pasante del metro del centro de Donostia, el proyecto de Errenteria quedará totalmente hipotecado para muchos años. Ante este riesgo es imprescindible reivindicar la necesidad del soterramiento del ferrocarril Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda y priorizar dicho proyecto antes que la nueva pasante del metro. No es más que pura lógica y con razones más que evidentes:

- Razones geométricas: se pueden realizar las obras sin ninguna desviación de la vía del tren, algo que no sucede en el caso de la pasante del metro del centro de Donostia.
- Razones de financiación: el costo sería muy inferior al de la pasante del metro, 70 millones de euros frente a los 200 millones.
- Calidad de vida: el el tramo del trayecto que atraviesa Errenteria es de alto riesgo, y un obstáculo arquitectónico de primer grado y que origina una gran falta de seguridad en el casco urbano.
- Accesibilidad total: la red ferroviaria de Eusko Tren, al dirigirse al sudoeste y alejarse

geltokitik urruntzean, zabaldu egiten da garraiobide publikoek, osotasunean, egoki artatutako hiri eremua (GPBI Indizea).

Horiek horrela, Errenteria Irabaziz eta EH Bildu udal taldeek honakoa aurkezten dugu:

### MOZIOA

1.- Errenteriako Udalbatzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritza eta EuskalTrenbideSarea-ri lehenetsi dezala Donostialdearako burdinbide-azpiegituren artean, beste edozein proiekturen gainetik, premiazkoa eta estrategikoa den Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda burdinbidearen eraikuntza. Zentzu horretan, ezar dezala 2017rako hainbat urtetarako aurrekontua eta has dezala obra-lizitaziorako oinarrien idazketa.

2.- Errenteriako Udalbatzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari sina dezala lehenbailehen hitzarmen marko bat Eusko Jaurlaritzarekin Altza- Pasai Antxo-Galtzaraborda burdinbidea elkar-finantzatzeko."

Jarraian.

Oyarbide andreak (EAJ/PNV) irakurri du EAJ/PNV eta Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos taldeek aurkeztutako erdibideko zuzenketa hau, Errenteria IrabaziZ eta EHBildu udal taldeek Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda burdinbide proiektu estrategikoa dela eta aurkeztutako mozioari buruz.

de Renfe, amplia el espacio urbano que cubrirán adecuadamente los transportes públicos (índice GBPI).

Así pues, los grupos municipales Errenteria Irabaziz y EH Bildu presentan la siguiente

### MOCIÓN

1.- El pleno de Ayuntamiento de Errenteria solicita encarecidamente al Gobierno Vasco y a Euskal Trenbide Sarea que prioricen entre las infraestructuras ferroviarias para Donostialdea, por encima de cualquier otro proyecto, la construcción urgente y necesaria del ferrocarril Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda. Y, en ese sentido, que establezca un presupuesto para diferentes años para el año 2017 y que inicie la redacción de las bases para la licitación de obras.

2.- El pleno de Ayuntamiento de Errenteria solicita encarecidamente a la Diputación Foral de Gipuzkoa que suscriba cuanto antes un marco de convenio con el Gobierno Vasco para que conjuntamente financien el tramo del ferrocarril Altza - Pasai Antxo-Galtzaraborda."

Seguidamente.

La sra. Oyarbide (EAJ/PNV) da lectura a la siguiente enmienda transaccional presentada por los Grupos municipales EAJ/PNV y Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos en relación con la propuesta de resolución sobre la conexión entre Altza-Galtzaraborda, presentada por los grupos Bildu e Irabaziz:

## ZIOA eta/edo AURREKARIAK

Zuzenketa sinatzen duten taldeei egokiagoa iruditzen zaie idazketa hau.

## ZUZENKETA

Errenteriako Udalak eskatzen die Eusko Jaurlaritzari eta Euskal Trenbide Sareari, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan Donostialdeko Metroko jarduketak susta ditzaten, 2015-2019rako Kudeaketa Plan Estrategikoan aurreikusitakoari jarraiki.

Hauek mintzatu dira:

\* Lemos jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) adierazi du Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda trenaren proiektu estrategikoari buruzko mozioari dagokionez, lehenengo azpimarratu nahi duela estrategiko hitza, bizi garen esparruko proiektu estrategiko bati egiten baitio erreferentzia. Hori gutxi balitz ere, idatzita dago 70 milioi euroko lurperatzeko proiektu bat, Eusko Jaurlaritzaren finantzazio-konpromisorik ez duena. Kontua da Eusko Jaurlaritzak eta hori babesten duten alderdiek irizpide bat defendatzen dutela, lehentasuna ematen dio Donostiako metroaren pasantea delakoari eta 200 milioiko gastua planteatzen dute. Iruditzen zaie horrek denbora luzerako hipotekatzea egingo duela Topoak gure herrian eragiten dituen arazoei aurre egin ahal izateko. Badira arrazoi objektiboak, idatzian adierazitakoak: geometria, finantzazioa, bizi-kalitatea, irisgarritasuna, etab., baina kontzeptu estrategikoaren jarrita arreta eta aurreko mozioan adierazitakoari eginda erreferentzia, eremu

## MOTIVACIÓN y/o ANTECEDENTES

Los grupos municipales firmantes consideran más correcta la redacción que se propone

## ENMIENDA

El Pleno del Ayuntamiento de Errenteria insta al Gobierno Vasco y a Euskal Trenbide Sarea para que, en colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa impulsen las actuaciones del Metro de Donostialdea de conformidad con lo previsto en el Plan Estratégico de Gestión 2015-2019

Se producen las siguientes intervenciones:

\* Interviene el Sr. Lemos (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que, en cuanto a la moción en torno al proyecto estratégico sobre el ferrocarril Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda, en primer lugar quiere poner el acento en la palabra estratégico, puesto que hace referencia a un proyecto estratégico de este ámbito en el que vivimos. Por si fuera poco, está redactado un proyecto de soterramiento con un importe de 70 millones de euros, que no cuenta con el compromiso de financiación del Gobierno Vasco. La cuestión es que hay un criterio defendido por el Gobierno Vasco y los partidos que lo sustentan, que están priorizando la conocida como pasante del metro de Donostia, en la que plantean un gasto de 200 millones. Entienden que eso va a conseguir una hipoteca a mucho tiempo, para que se pueda atender a los problema que continuamente observan que representa el paso del Topo en nuestra localidad. No solo son cuestiones objetivas como las razones que señalan en el escrito: geométricas, de financiación,

degradatuan gaude, ikusten da Altzatik honantz datorren ardatz hori bigarren mailan geratzen dela eta beste ardatz bati ematen zaiola lehentasuna; eta gobernu-taldeari iruditzen zaio horrek ezin duela horrela izan, ezin duela gure ardatzaren kaltetan izan. Ez dute arazo hori ikusten kasu honetan soilik, DUSI laguntzak ere gure esparrutik desagertu dira, eta berriro dio, guztiek dakite eremu degradatuan daudela. Komeni da aipatzea duela gutxi topoa lurperatzearen inguruko mozio batean egin zuten hausnarketa, guztiek irizpide bera partekatzen baitzuten. Azpimarratu nahi dute lehentasun kontua dela, beren ustez eremu hau lehentasunezkoa da eta ez dute ulertzen Eusko Jaurlaritzak defendatzen duen logika, diru-kopuru hori Donostiako pasantearen beste eremu batean erabiltzea. Horregatik aurkeztu dute mozio hau, eta honela dio lehen puntuan: 1.- Errenteriako Udalbatzaren Osoko Bilkurak hertsatuki

eskatzen dio Eusko Jaurlaritza eta Euskal Trenbide Sarea-ri lehenetsi dezala Donostialdearako burdinbide-azpiegituren artean, beste edozein proiekturen gainetik, premiazkoa eta estrategikoa den Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda burdinbidearen eraikuntza. Zentzu horretan, ezar dezala 2017rako hainbat urtetarako aurrekontua eta has dezala obra-lizitaziorako oinarrien idazketa. eta, bigarren: 2.- Errenteriako Udalbatzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari sina dezala lehenbailehen hitzarmen marko bat Eusko Jaurlaritzarekin Altza- Pasai Antxo-Galtzaraborda burdinbidea elkar-finantzatzeko.

de calidad de vida, de accesibilidad, etc, sino que atendiendo al concepto estratégico y haciendo referencia a lo señalado en la moción anterior, estamos en una zona degradada, se vé que este eje que viene de Altza hacia aquí, queda relegado a un segundo plano y se prioriza otro eje, que desde el Equipo de Gobierno entienden que no puede ser, en detrimento del nuestro. No solo lo ven en este caso concreto, sino que también las ayudas DUSI han volado de nuestro ámbito, que repite, se encuentra en una zona degradada reconocida por todos. También conviene traer a colación unas reflexiones que se hicieron hace no mucho en relación a una moción sobre el soterramiento del topo, en la que todos compartían un mismo criterio. Quieren poner énfasis en que es una cuestión de prioridades, ellos entienden que es prioritaria esta zona y no entienden la lógica que se defiende desde el Gobierno Vasco,

en este caso, el implementar esa cantidad de dinero en el otro ámbito de la pasante de Donostia. Por esa razón presentan esta moción que en su primer punto dice: 1.- El pleno de Ayuntamiento de Errenteria solicita encarecidamente al Gobierno Vasco y a Euskal Trenbide Sarea que prioricen entre las infraestructuras ferroviarias para Donostialdea por encima de cualquier otro proyecto la construcción urgente y necesaria del ferrocarril Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda. Y, en ese sentido, que establezca un presupuesto para diferentes años para el año 2017 y que inicie la redacción de las bases para la licitación de obras. Y en segundo lugar: 2.- El pleno de Ayuntamiento de Errenteria solicita encarecidamente a la Diputación Foral de Gipuzkoa que suscriba cuanto antes un marco de convenio con el Gobierno Vasco para que conjuntamente financien

\* Oyarbide andreak (EAJ/PNV) euskaraz barkamena eskatu du lehenago ez pasa izanagatik. Erdibideko zuzenketa bat aurkeztu nahi izan dute, hau esanez: "Errenteriako Udalak eskatzen die Eusko Jaurlaritzari eta Euskal Trenbide Sareari, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan Donostialdeko Metroko jarduketak susta ditzaten, 2015-2019rako Kudeaketa Plan Estrategikoan aurreikusitakoari jarraiki". Zentzu horretan, bere taldeak bat egiten du plan estrategiko honen helburuarekin, Donostialdeako metroa bultzatzea epe luzerako inbertsio estrategiko bat da, 2030erako anbizio handiko garraio-sare publiko metropolitano lehiakorra edukitzea. Horregatik eskatzen diote Eusko Jaurlaritzari eta Euskal Trenbide Sareari Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean hau bultzatzea.

\* Legorburu jaunak (Errenteriako IrabaziZ) adierazi du gaur, EHBilduk eta Erreneria IrabaziZek batera aurkeztutako mozioarekin talde politiko guztiek aukera dutela Errenteriaren alde egin eta mozioa babesteko. Errenteriako IrabaziZek uste du trenak, kasu honetan topoak, paper sozial garrantzitsua izan behar duela hala trazatuan nola emandako zerbitzuan. Beren apustua da garraio publikoa hobetzea, guztiek defendatzen dutela dioten eta ahalik eta eraginkorrena izatea nahi duten garraio hori. Bistakoa da proiektuak eta burutu beharreko inbertsioak lehenetsi behar direla lehen adierazitako irizpideak kontuan izanda, horregatik eskatzen dute Altza, Pasai Antxo eta Galtzarabordako geltokien arteko lotura lehenesteko eta eraikitzeko. Iruditzen

el tramo del ferrocarril Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda.

\* Interviene en euskera la Sra. Oyarbide (EAJ/PNV), pidiendo perdón por no haberla repartido antes, pero quieren presentar una moción alternativa que dice: "El Pleno del Ayuntamiento de Erreneria insta al Gobierno Vasco y a Euskal Trenbide Sarea para que, en colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa impulsen las actuaciones del Metro de Donostialdea de conformidad con lo previsto en el Plan Estratégico de Gestión 2015-2019", En ese sentido se suman al objetivo que tiene ese Plan Estratégico. Impulsar el metro de Donostialdea, es una inversión estratégica a largo plazo, es un plan ambicioso para 2030, que pretende tener un sistema de transporte público competitivo. Por ello piden al Gobierno Vasco y a Euskal Trenbide Sarea que en colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa impulsen las actuaciones del Metro de Donostialdea.

\* Interviene el Sr. Legorburu (Errenteriako IrabaziZ) manifestando que hoy, con la moción presentada conjuntamente con EHBildu y Errenteriako IrabaziZ, todos los Grupos Políticos tienen la oportunidad de apoyarla en favor de Erreneria. Errenteriako IrabaziZ cree que el tren, en este caso el topo, debe tener un importante papel social tanto en su trazado como en los servicios prestados. Apuestan por mejorar el transporte público, ese transporte que todas y todos dicen defender y que pretenden que sea lo más eficaz posible. Es evidente que se deben priorizar los proyectos y la inversión a realizar teniendo en consideración los criterios apuntados anteriormente, por eso piden la priorización y la construcción del enlace ferroviario entre las estaciones de Altza, Pasai

zaie horrela Errenteriako bizilagunek ikusiko dutela Donostiarekin trenez duten loturaren maiztasuna hobea dela, eta, beste aldetik, balizko hirigintza-jarduketek nabarmen hobetuko dutela Galtzaraborda auzoko egoera. Eskatzen du proposamen honen aldeko botoa emateko, proposamena gauzatzeko eragingo lukeelako Errenteriako jendearen bizikaltatea hobetzea, Eusko-Trenen hiriarteko zerbitzua eraginkorragoa izatea eta idatzita dauden proiektuak aprobetxatzea; gainera, idatzitako proiektu horiek erantzuten diete Eusko-Trenen Donostia guztiko erabiltzaileen beharrei.

\* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) idatzi hau irakurri du gaztelaniaz: Bilduk eta Irabaziz aurkeztutako mozioari dagokionez, adierazi behar dugu mozio hori hilabete hasieran eztabaidatu zutela Batzar Nagusietan eta bertan behera geratu zela. Gure taldeak hainbatetan adierazi du udalbatzan defendatu behar dela metroa Errenterian desdoblaztea eta lurperatzea, eta udalbatzaren erabaki horiek hainbat erakunderi helarazi zaizkie. Ildo horretan, oraindik ere mantentzen ditugu Errenteriaren interesak defendatzeko borondatea eta konpromisoa. Hirituta gaude, baina pozten gara mozioa sinatzen duten taldeek behingoz aitortzeaz Donostiako Metroaren alde daudela. Hori egitearen alde zaudete eta proiektu estrategiko gisa aipatzen duzue, eta hori aldaketa handia da orain arte izan duzuen jarrera ikusita. Hori esanda, Irabazi eta Bilduren Errenteriako mozio hau Batzar Nagusietan, Donostiako Udalean eta beste hainbat erakundetan aurkeztu dituzten mozioen ia berdina da, eta erantzuten dio Donostialdeako Metroaren aurkako estrategia

Antxo y Galtzaraborda. Entienden que así las y los vecinos de Errenteria verán la mejora de la frecuencia en el enlace ferroviario con Donostia y por otro lado las posibles actuaciones urbanísticas que mejorarán sustancialmente la situación en el barrio de Galtzaraborda. Solicita el voto a favor de esta propuesta cuya materialización supondría mejorar la calidad de vida de la gente de Errenteria, mejorar el transporte público de viajeros en Errenteria, hacer más eficaz y eficiente el servicio inter-urbano de Eusko-Tren y aprovechar proyectos ya redactados que responden a las necesidades usuarias de Eusko-Tren del conjunto de Donostialdea.

\* Interviene el Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) dando lectura al siguiente escrito: "En relación a la moción presentada por Bildu e Irabaziz tenemos que manifestar que dicha moción ya ha sido debatida a primeros de este mes en Juntas Generales y que la misma ha decaído. Nuestro grupo ha manifestado en diferentes ocasiones en pleno, la necesidad de defender el desdoblamiento y soterramiento del metro a su paso por Errenteria, trasladando a los diferentes organismos dichas decisiones plenarios. En este sentido seguimos manteniendo nuestra voluntad y compromiso en defender los intereses de Errenteria. Lo primero y más sorprendente de lo cual nos alegramos es ver que por fin se reconoce y se apuesta por los grupos firmantes por el Metro de Donostialdea. Ya están ustedes por la labor y ya hablan de ello como proyecto estratégico, lo cual supone un gran giro sobre la posición que hasta la fecha han venido manteniendo. Dicho esto, esta moción de Irabazi y Bildu para Errenteria es prácticamente igual que las mociones que están

politikoari. Ez du zerikusirik Errenteriako herritarren interes komuna defendatzearekin. Ezin dugu babestu horrelako mozio bat, nahita ezkututzen eta saihesten baitu Donostiako Metroaren kontzeptua. Altza-Pasai Antxo-Galtzarabordako trenaren “proiektu estrategikoa” “Donostialdeako Metroaren proiektu estrategikoa da”, Lasartetik Irun-Hondarribira, horixe da, Donostialdeako Metroaren proiektu estrategikoa, ez litzatekeena proiektu hori izango eta ez lukeena zentzurik izango Donostiako pasantea lurperatu gabe eta Altza-Galtzaraborda eta Irun-Hondarribia gabe. Orain Bildu eta Ahal Duguk aipatzen duten eztabaida, Altza-Pasai Antxo-Galtzarabordako burdinbidea premia eta lehentasun handiagoa duen proiektua

delako metro-pasantearekin alderatuta, eztabaida faltsua da. Batak ez du besteak baino lehentasun handiagoa, bata ez baita bestea gabe, pasanterik eta Altza-Galtzarabordarik gabe ez dago Donostialdeako Metroaren proiekturik. Donostialdeako Metroa tren-garraio publikoko proiektua da, jasangarriena eta sozialena; Gipuzkoarako mugikortasun-proiektu estrategikoa gisa aurreratzen dute —berriki Altzako geltokian egin duten inaugurazioa da adierazlerik onena—. Orain Donostiako pasantea tokatzen da eta, gero, Altza-Galtzaraborda, eta zergatik orain pasantea? Bestela trazatua itogune bihurtuko delako Easo plazan amaituta eta ez duelako hiriaren erdigunerako edo unibertsitaterako eta enpresen gunerako edo Lasarterako eta kostarako loturarik izango. Esaten ari garena da tren-zerbitzu publikoa ematea ia gipuzkoarren % 70i, zerbitzu metropolitano azkarra, 7,5 minutuko maiztasunarekin, egunero Irun-Hondarribitik Lasartera arte lanera edo ikastera joateko mugitzen diren pertsonak, Gipuzkoa osoan biztanle gehien dituen korridorea. Altza-

presentando en JJ.GG, Ayuntamiento de Donostia y otras instituciones y obedece a su estrategia política en contra del Metro de Donostialdea. Nada que ver con la supuesta defensa del interés común de la ciudadanía de Errenteria. No podemos apoyar una moción como ésta que omite, esconde, evita y oculta intencionadamente el concepto de Metro de Donostialdea. El “proyecto estratégico” sobre el ferrocarril Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda es el “proyecto estratégico del Metro de Donostialdea” desde Lasarte a Irún-Hondarribia, ni más ni menos, proyecto estratégico del Metro de Donostialdea que no sería tal proyecto ni tendría sentido sin la Pasante soterrada de San Sebastián ni tampoco sin Altza-

Galtzaraborda e Irún-Hondarribia. El debate al que ahora apela Bildu y Podemos de “priorizar por encima de cualquier proyecto la construcción urgente y necesaria de Altza-Galtzaraborda” frente a la Pasante donostiarra, es un debate falso. No hay prioridad de uno sobre otro porque sin uno y sin otro, sin la Pasante y sin Altza-Galtzaraborda el proyecto de Metro de Donostialdea no existe. El Metro de Donostialdea es un proyecto de transporte ferroviario público, el más sostenible y el más social, que está avanzando como proyecto estratégico de movilidad para Gipuzkoa —y la reciente inauguración de la estación de Altza es el mejor exponente—. Ahora toca la Pasante donostiarra y después Altza-Galtzaraborda y ¿por qué toca ahora la Pasante?. Porque si no, el trazado es un cuello de botella que termina en la plaza Easo y que no tiene continuidad hasta el centro de la ciudad ni hasta la zona universitaria y empresarial ni conexión hasta Lasarte y la costa. Estamos hablando de dar servicio ferroviario público a un volumen de población que

Galtzarabordari lehentasuna ematea eta Donostiako pasanteari EZ esatea eztabaida okerra da, ez du zentzurik, Altza-Galtzaraborda ez baita ezer Donostiako pasanterik gabe, eta Donostiako pasantea ez baita ezer izango Altza-Galtzaraborda eta Lasartetik Irun-Hondarribira arteko garapenik gabe. Zergatik EH Bilduk ez zuen defendatu aurreko legegintzaldian, Aldundian gobernuan zela, Errenteriako Udalean gobernuan zela, Pasaiako Udalean gobernuan zela, orain bat-batean munduko "proiektu estrategiko" garrantzitsuena dena? Orain konturatu dira garrantzitsuak dela? Beraiek gobernuan zeudenean ez al zen garrantzitsuak? Zer egin zuten beraiek 4 urtean? Mozioaren azalpen-zatian esaten da obra egiteko eskumena duen erakundeak momentuz uko egin diola obra egiteari, eta ez da egia. Mozioan ematen diren finantza-arrazoiei

dagokienez, eman diren zifrak ez dira egiazkoak eta, are gehiago, ez dagoenez zati horretarako proiekturik, ezin da kostua jakin. Metroaren proiektuaren lehentasunak irizpide teknikoekin egiten dira politikoekin baino gehiago, eta plangintza erakunde guztiek lankidetzan egiten dute eta ez da nahierakoa. Informazio ugari dago (bidaiarien bolumena, maiztasunak, ratioak, etab.), ezinbesteko baldintza baita plan estrategiko bat burutzeko eta funtsezko elementua egiten den inbertsioaren eraginkortasuna neurtzeko. Baina zuek hori badakizue, beste gauza bat da eskatzea, estrategia politikoagatik, ez interes komuna defendatzeko. Horregatik, gure taldeak ez du mozioa babestuko.

abarca a casi el 70% de los guipuzcoanos, un servicio metropolitano, rápido, con frecuencias de 7,5 minutos, un tren social que conectará a las personas que se desplazan diariamente para trabajar, para estudiar desde Irun-Hondarribia hasta Lasarte, el corredor más poblado de todo el territorio de Gipuzkoa. Priorizar Altza-Galtzaraborda y decir NO a la Pasante donostiarra es una discusión fallida, sin sentido porque Altza-Galtzaraborda no es nada sin la Pasante donostiarra y la Pasante no será nada sin Altza-Galtzaraborda y todo el desarrollo del Metro de Donostialdea desde Lasarte a Irún-Hondarribia. ¿Por qué EH Bildu no ha defendido en la anterior legislatura que gobernaba la Diputación, que gobernaba el Ayuntamiento de Errenteria, que gobernaba el Ayuntamiento de Pasaia, el que ahora, de repente, es el "proyecto estratégico" más

importante del mundo mundial? ¿Se han dado cuenta ahora de esa importancia? ¿En la época en que ellos gobernaban no lo era? ¿Qué hicieron ellos en 4 años? En la justificación de la moción se manifiesta que el organismo que ostenta la competencia para realizar la obra de momento ha renunciado a la misma y eso no es cierto. En relación a las razones financieras que se exponen en la moción, no son ciertas las cantidades que se manejan y más cuando no existe un proyecto para este tramo con lo cual no se puede saber el coste. Las prioridades del proyecto del metro se hacen más con criterios técnicos que políticos y la planificación realizada en colaboración conjunta de todas las entidades no es caprichosa. Contiene cantidad de información (volumen viajeros, frecuencias, ratios, etc, etc,.....) que es un requisito imprescindible para la correcta ejecución de un plan estratégico y



\* Lemos jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) adierazi du Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) esandakoaren inguruan, arreta eman diola beste gai bat aipatu ez izana, pasantearekin lortu nahi zena dela erantzutea langile-auzoetakoek hondartzara joan ahal izateko duten eskubidea hain zuzen ere. Hori erantzun zion Legebiltzarreko Euskal Sozialisten taldeko ordezkariak Orereta/Errenteriako EHBilduko ordezkariari, horixe esatea besterik ez zaizu falta izan. Bere taldeak topoaren aldeko apustua egiten du, apustu estrategikoa, eta behin eta berriz ikusten dutena da eremu honi eragiten dion edozein gai bigarren planoan geratzen dela. Bere taldearen ustez "sine die" hipotekatuko da eremu honetan arrastan daramatzaten arazoei erreferentzia egiten dien edozein jarduketara: Altza, Pasaia, Errenteria eta Bidasoaldea ere bai. Arazoa oso zehatza da, oraingo Altzako geltokia zaku-hondo bihurtzea.

\* Alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) adierazi du ez dakiela Errenteriako Udaleko Alderdi Sozialistako zinegotzi bat edo Donostiako Udalekoa entzuten ari den. Ez daki defendatzen duena diren Donostiako pasanterako dituzten hobekuntzak edo kontua den udal honen eta udalerrri honen interesak defendatzea hiriburuak gehiegi tiratzen duelako lehenesten diren beste obra batzuen aurrean. Gauza

elemento esencial de medición de la eficacia de la inversión que se realice. Pero esto ustedes ya lo saben, otra cosa es pedir por estrategias políticas, no por defensa de intereses comunes. Por todo ello, nuestro grupo no apoyara la moción presentada."

\* Interviene el Sr. Lemos (Orereta/Errenteriako EHBildu) en relación con lo manifestado con el Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) le llama la atención el no haber mencionado otra cuestión, el tema de la pasante pretendía dar respuesta a un derecho que tienen los vecinos de los barrios obreros para poder ir a la playa. Esto es lo que respondió el representante del Grupo Parlamentario de los Socialistas Vascos al representante de Orereta/Errenteriako EHBildu, es lo único que le ha faltado añadir a su intervención. Su Grupo hace una apuesta por el topo, una apuesta estratégica y lo que ven una y otra vez es que cualquier cuestión que afecta a este ámbito queda relegada a un segundo plano. Su Grupo cree que se va a hipotecar "sine die" cualquier actuación que haga referencia a los problemas que están arrastrando en este ámbito, Altza, Pasaia, Errenteria e incluso Bidasoaldea. El problema es muy concreto, la conversión de la actual estación de Altza en un auténtico fondo de saco.

\* Interviene el Sr. Alcalde ( Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que no sabe si está escuchando a un Concejal del Partido Socialista de Errenteria o del Ayuntamiento de Donostia. No sabe si lo que se está defendiendo son las mejoras que tienen la pasante para Donostia o se trata de defender los intereses de este Ayuntamiento y de este Municipio frente a otras obras que se priorizan

batek ez du bestearekin zerikusirik, hemen zehaztu behar dena da zeri eman lehentasuna. Momentu honetan lehentasuna eman zaio Donostian obra bat egiteari pasante batekin, eta horren alde edo kontra egon, hori beste gauza bat da, horri lehentasuna ematen ari zaizkio Altza-Antxo-Gaintxurizketako obraren gainean. Iruditzen zaio udalerrri honetako zinegotziek ez litzuketela goratu behar hemengo herritarrei Donostiako erdigunera iristeko aukera emango dien pasantearen alde onak, baizik udalerrri honetako herritarrei askoz ere gehiago interesatzen zaiela topoa lurperatzea eta Gaintxurizketako zerbitzua. 200 milioi aipatu dira Donostiako pasanterako eta 70 milioi besterako, komeniko litzateke azken aukera defendatzea. Gogoratu nahi du Plan Partzialean hasiera batean ez zela bildu lurperatzea, baina bere taldeak osoko bilkurara ekarri zuen lurperatzea planean sartzeko aukera. Zalantza asko sortzen dira Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Trenbide Sareak izan dezaketen borondatearen inguruan, zein diren lehentasunak, eta kasu honetan argi dago lehentasuna Donostiako pasanteak duela. Udalbatza honetako zinegotziei eskatu nahi die defenda ditzatela udalerrri honi eragiten dioten interesak defendatzeko, beste erakunde batzuetan gobernuan dauden alderdiek babesten dituzten interesak beharrean. Garrantzitsuena da Errenteriako herritarren interesak defendatzea. Ildo horretan, harrিতuta utzi du Alderdi Sozialistak topoaren Donostiako alde onak defendatu dituen bezala defendatu izanak.

porque la Capital tiende a tirar demasiado. Una cosa no tiene por que ver con la otra, aquí lo que se tiene que determinar es qué se prioriza. En estos momentos se está priorizando una obra en Donostia con una pasante que independientemente de que se pueda estar en contra o a favor, que eso es otra cosa, se está priorizando frente a otra obra que es la de Altza-Antxo-Gaintxurizketa. Cree que los Concejales de este Municipio no deberían alabar las bonanzas de esa pasante que va a posibilitar que ciudadanos y ciudadanas de este Municipio puedan llegar hasta el centro de Donostia sino que cree que a los ciudadanos y ciudadanas de este Municipio les interesa bastante más el soterramiento de todo lo que tiene que ver con el topo y el servicio con la zona de Gaintxurizketa. Se habla de 200 millones para la pasante de Donostia y 70 millones para la otra, sería conveniente defender esta última. Quiere recordar que el Plan Territorial Parcial no contempló el soterramiento en un principio pero su Grupo trajo al Pleno la posibilidad de que este soterramiento estuviera incluido en este Plan. Se generan muchas dudas en relación con la voluntad que el Gobierno Vasco y Eusko Trenbide Sarea pudieran tener, cuáles son las prioridades y en este caso está claro que la prioridad es la pasante de Donostia. Quiere pedir a los Concejales y Concejales de este Pleno que defiendan los intereses que afectan a este Municipio frente otros intereses que sustentan Partidos que están gobernando en otras instituciones. Lo importante es la defensa de los intereses de los ciudadanos y ciudadanas de Errenteria. En este sentido la defensa que el Partido Socialista ha realizado sobre las bonanzas del topo en Donostia le deja algo perplejo.

\* Legorburu jaunak (Errenteriako IrabaziZ) adierazi du guztiek dakitela gaur egungo egoera ekonomikoan 200 milioiko metroaren alde egiteak, Altza-Galtzarabordako lotunearen 70 milioien alde beharrean, suposatzen duela aurrekonturik gabe uztea edo data zehatzik gabe atzeratzea garraio-sare hori bera hobetzeko beste proiektu batzuk. Donostialdeako metroa delakoaren eraikuntzari lehentasuna ematea Eusko Trenen Gipuzkoako sareari eragiten dioten beste proiektu batzuen gainean, akatsa da, diru horrekin Gipuzkoako lurralde osoan egin baitaitezke jarduketak, adibidez, Eibarko saihebidetan. Rodriguez jaunari esan nahi dio (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) Altza eta Lasarte artean aipatu duen lotunea, badagoela dagoeneko.

\* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du metroaren proiektu global bat aipatu duela, ez zatikakoa. Alkateak Gantxurizketa aipatu du, mozioan aipatzen dena Galtzaraborda arteko zatia izan arren; pentsatzen dut "lapsus" bat izango zela.

\* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) erantzun du baietz, Galtzaraborda esan nahi zuela, eta ez Gantxurizketa.

Amaitu dira mintzaldiak.

Bozkatu dute **EAJ/PNV eta Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos udal taldeek aurkeztutako erdibideko zuzenketa, EH Bildu eta Irabaziz taldeek Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda burdinbide proiektu estrategikoa dela-eta aurkeztutako mozioari buruzkoa.**

\* Interviene el Sr. Legorburu (Errenteriako IrabaziZ) manifestando que todos y todas saben que en la actual coyuntura económica, la apuesta por el proyecto de 200 millones del metro frente a los 70 millones del enlace Altza-Galtzaraborda, supone dejar sin presupuesto o atrasar sin fecha concreta otros proyectos para mejorar esta misma red de transporte. Priorizar la construcción del llamado metro de Donostia sobre otros proyectos que afectan a la línea de Eusko Tren de Gipuzkoa es un error puesto que con este dinero se pueden llevar a cabo actuaciones en el conjunto del Territorio Gipuzkoano como es el caso de la variante de Eibar. Quiere decirle al Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos), que la conexión entre Alza y Lasarte de la que ha hablado, ya existe.

\* Interviene el Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos), manifestando que se ha referido a un proyecto global de metro, no de tramos. El Alcalde ha mencionado Gantxurizketa cuando lo que habla en la moción es del tramo hasta Galtzaraborda, cree que esto ha sido un "lapsus".

\* El Alcalde sr. Mendoza (Orereta/Errenteria EHBildu) responde que efectivamente se ha querido referir a Galtzaraborda y no a Gantxurizketa.

Finalizadas las intervenciones.

Sometida a votación la **enmienda transaccional presentada por los Grupos municipales EAJ/PNV y Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos en relación con la propuesta de resolución sobre la conexión entre Altza-Galtzaraborda, presentada por los grupos EH Bildu e Irabaziz**

Udalbatzak, aurkako 11 botoren gehiengoarekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteriako IrabaziZ) eta aldeko 10 botorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV), hau erabaki du:

### ERABAKIA

**Ez onartzea** Altza-Galtzaraborda arteko loturari buruzko ebazpen-proposamenaren inguruan EAJ/PNV eta Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos udal taldeek aurkeztutako erdibideko zuzenketa (gai honen azalpen-zatian jasota dago).

Jarraian

Bozkatu da **Errenteria IrabaziZ eta EH Bilduk Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda burdinbide proiektu estrategikoa dela-eta aurkeztutako mozioa.**

Udalbatzak, aldeko 11 botoren gehiengoarekin (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteriako IrabaziZ), aurkako 10 botorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) eta 3 abstentziorekin (EAJ/PNV), hau erabaki du:

### ERABAKIA

**Onartzea** Errenteria IrabaziZ eta EH Bilduk Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda burdinbide proiektu estrategikoa dela-eta aurkeztutako mozioa (gai honen azalpen-zatian jasota dago).

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos en contra (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteriako IrabaziZ) y 10 votos a favor (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, EAJ/PNV),

### ACUERDA

**No aprobar** la enmienda transaccional presentada por los Grupos municipales EAJ/PNV y Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos en relación con la propuesta de resolución sobre la conexión entre Altza-Galtzaraborda, presentada por los grupos EH Bildu e Irabaziz, que queda reflejada en la parte expositiva del presente asunto.

Seguidamente

Sometida a votación la **Moción presentada por Errenteria Irabaziz y EH Bildu en torno al proyecto estratégico sobre el ferrocarril Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda.**

El Pleno de la Corporación por mayoría de 11 votos a favor (Orereta/Errenteriako EHBildu, Errenteriako IrabaziZ), 7 votos en contra (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) y 3 abstenciones (EAJ/PNV),

### ACUERDA

**Aprobar** la moción presentada por Errenteria Irabaziz y EH Bildu en torno al proyecto estratégico sobre el ferrocarril Altza-Pasai Antxo-Galtzaraborda, que queda reflejada en la parte expositiva del presente asunto.

**5. Udal Talde Sozialistak aurkeztutako mozioa, etxebizitzak alokatzeko laguntzak emateko 2017.urterako aurrekontu-partida bat txertatzea eskatzeko, gazteak emantzipatzea ahalbidetzeko asmoz.**

Mozio hau irakurri dute:

“Errenteriako Udaleko Euskal Sozialistak – Socialistas Vascos taldeak, Tokiko Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera, Udalbatzaren irizpenean jarri nahi du **MOZIO** hau:

**ZIOEN AZALPENA**

Oraindik ere jasaten ari garen krisi ekonomikoak bereziki astintzen ditu gazteak, lan duina aurkitzeko zailtasunaz gain, gure herrian etxebizitzaren alokairua oso garestia baita. Horrek gazte askori aukera kentzen die emantzipatzeko, eta gurasoen etxean geratu behar dute eta, neurri batean, beren bizitza-proiektua atzeratu.

Gazteriaren Euskal Behatokiaren azterlanaren ondorioak ikaragarriak dira, ondorioztatu baitute etxebizitza librea Euskadin ez dagoela gazteen esku, eskuraezina baita lan egiten duten gehienentzat. Datu horien arabera, merkatu librea jo ahal izateko, soldatapeko gazteek orain jasotzen dutenaren bikoitza jaso beharko lukete. Gipuzkoako soldatapeko 35 urtez azpiko gazteek hileko soldata garbiaren % 64,9 bideratu beharko lukete etxebizitza bat merkatu librean alokatuta emantzipatu nahi

**5. Moción presentada por el Grupo Municipal Socialista solicitando incorporación de una partida presupuestaria para el año 2017 para la concesión de ayudas para el alquiler de viviendas a fin de facilitar la emancipación de los jóvenes.**

Leída la siguiente moción:

"El Grupo Municipal Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak del Ayuntamiento de Errenteria, de acuerdo con lo previsto en el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, desea someter a la consideración del Pleno, la siguiente **MOCIÓN**:

**EXPOSICION DE MOTIVOS**

La crisis económica que seguimos padeciendo se ceba especialmente con los jóvenes ya que la dificultad que padecen a encontrar un trabajo digno, se junta con el alto precio de los alquileres de viviendas en nuestra villa. Esto imposibilita a muchos de ellos la emancipación y se ven obligados a permanecer en casa de sus padres aplazando parte de sus proyectos vitales.

Las conclusiones de los estudios del Observatorio Vasco de la Juventud son demoledoras, ya que determinan que la vivienda libre en Euskadi no está al alcance de la juventud, ya que resulta inaccesible para la mayoría de quienes trabajan. Según estos datos, para poder acceder al mercado libre las personas jóvenes asalariadas, deberían cobrar el doble de lo que perciben actualmente. La juventud guipuzcoana asalariada menor de 35 años, debería destinar el 64,9% de su salario neto mensual si

izanez gero, nahiz eta aditu guztiek gomendatzen duten ez bideratzea soldataren % 30 baino gehiago.

Ekimen honen helburua da sustatzea gazteek etxebizitzarako sarbidea izan dezaten beharrezko baldintzak, horrela autonomiarako eta emantzipaziorako prozesuan laguntzeko eta egun hutsik dauden etxebizitza pribatuak alokairuko merkatuan sar daitezen arrazoizko prezioan, horrela dagokion funtzio soziala betetzeko.

Horregatik, Errenteriako PSE-EEK mozio hau aurkeztu dio Errenteriako Udalbatzari 2017ko AURREKONTUAN txerta dadin partida bat emantzipaziorako laguntza hauek martxan jartzeko eta talde politiko guztien artean eztabaida daitezen zein diren ezarritako helburuak lortzeko irizpide egokienak. Horregatik aurkeztu du mozio hau:

### **MOZIOA**

1- Errenteriako Udalbatzak eskatzen du gutxienez 100.000 euroko partida bat sartzeko 2017ko aurrekontuetan, gazteei alokairurako laguntzak emateko.

2- Errenteriako Udalbatzak eskatzen du dagokion batzordean eztabaida daitezen horretarako beharrezko araudia eta ezarritako helburuak lortzeko irizpide egokienak.”

quiere emanciparse en solitario alquilando una vivienda en el mercado libre, cuando todos los expertos recomiendan no destinar más del 30% del sueldo.

El objetivo de esta iniciativa es promover las condiciones necesarias para facilitar el acceso a las mismas a nuestros jóvenes, ayudándoles de este modo en el proceso hacia la autonomía y la emancipación, así como facilitar que las viviendas de titularidad privada que actualmente se encuentran deshabitadas se incorporen al mercado de alquiler a un precio asequible, cumpliendo así la función social que les corresponde.

Por ello, el PSE-EE de Errenteria presenta esta moción al Pleno del Ayuntamiento de Errenteria para que se incorpore al PRESUPUESTO 2017 una partida para poner en marcha estas ayudas a la emancipación y se debata entre todos los grupos políticos los criterios más adecuados para la consecución de los objetivos fijados y por las que presenta la siguiente:

### **MOCIÓN**

1- El pleno del Ayuntamiento de Errenteria solicita que se incorpore una partida presupuestaria no inferior a 100.000 € en el Presupuesto 2017 para conceder ayudas para el alquiler de viviendas para jóvenes.

2- El pleno del Ayuntamiento de Errenteria solicita que se debata en la comisión informativa correspondiente la normativa necesaria y los criterios más adecuados para la consecución de los objetivos

Jarraian

**Errenteria-Oreretako EHBILDUK eta Errenteria IRABAZIZek gazteen emantzipazio beharrei erantzuteko udal politikaren inguruan aurkeztutako mozio alternatiboa irakurri dute.**

### "JUSTIFIKAZIOA

Indarrean ditugun lege-arau ezberdinek, pertsona orok etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea dugula jasotzen dute, lehen mailako behar eta eskubidea den heinean. Errealitatea bestelakoa da, ordea. Azken urteotan, gure jendartea krisi ekonomiko sakonak astindu duen honetan, asko hazi da etxebizitza premia asetu ezin duten pertsonen kopurua.

Egoera honen baitan, gazteen kolektiboa da kolpatuenetako bat. Lan duin eta iraunkorren gabeziak eta lan-munduratzeko adina gero eta altuagoa izateak, gurasoen etxetik emantzipatzeko aukerak asko murriztu dizkio gazterari.

Etxebizitzaren gaineko eskumenen jabe Eusko Jaurlaritzaren arren, errealitate honi erantzun nahian neurri zehatzak hartzea beharrezko ikusten dugu.

Bide horretan, 2016ko aurrekontuetan 80.000€ko partida adostu genuen GAZTE PLAN bat burutzeko,

fijados."

Seguidamente.

Se da lectura a la siguiente **Moción alternativa presentada por Errenteria-Oreretako EHBILDU y Errenteria IRABAZIZ sobre la política municipal para dar respuesta a las necesidades de emancipación de la juventud.**

### "JUSTIFICACIÓN

Las diversas disposiciones en vigor recogen el derecho de toda persona a disfrutar una vivienda digna y adecuada en la medida de que se trata de una necesidad y de un derecho fundamental. Sin embargo, la situación real es muy distinta. En estos últimos años en los que la sociedad se ha visto sacudida por una profunda crisis económica, ha aumentado considerablemente el número de personas que no pueden satisfacer su necesidad de disponer de una vivienda.

Así, uno de los colectivos que más ha sufrido esta situación ha sido la juventud. La falta de trabajo digno y estable y la cada vez mayor edad con la que se incorporan al mundo laboral reduce considerablemente las oportunidades de la juventud para emanciparse de casa de sus progenitores.

Aunque las competencias relativas a la vivienda correspondan al Gobierno Vasco, es necesario tomar medidas concretas para dar respuesta a esta realidad.

Para ello, en los presupuestos de 2016 acordamos una partida de 80.000 € para confeccionar el PLAN

zeinak prozesu parte-hartzaile baten bidez gure herriko gazteen behar eta premiak zeintzuk diren jasoko dituen. Ezinbesteko deritzogu gazteekin batera egoeraren gaineko diagnosi bat osatzeari, beste sektore batzuekin bezala etxebizitzaren beharrari erantzuna emateko urratsak zeintzuk diren haiekin adosteko.

### MOZIOA

1. Errenteriako Udaltzaren Osoko Bilkurak gazteen emantzipazio beharrei erantzun integral bat emateko ardura beregain hartzen du.

2. Errenteriako Udaltzaren Osoko Bilkurak garrantzitsu deritzo, dagokion batzorde politikoaz haratago, etxebizitzaren eta emantzipazioaren gaia gazteekin lantzeari, haien kezkek eta beharrak identifikatu eta errealitatera ondoen egokitzen den proposamen bat osatu ahal izateko."

Hauek mintzatu dira:

\* Ostolaza andreak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du etxebizitzaren gaia mamitsua dela bere horretan. Denon oinarritzko eskubide beharko lukeen arren, premia oso larrian bizi diren pertsonen kopurua handia da. **Paradoxikoa dirudien arren, inoiz baino gehiago eraiki den urte hauetan, inoiz baino etxe gehiago ditugu hutsik. Eta inoiz baino jende gehiago etxerik gabe.** EAEn, esaterako, 91.000 etxe huts ditugu momentu honetan eta 47.000 pertsonak dute izena emanda Etxebiden. Datu hauek ikusita, argi dugu etxebizitzaren gaia

DE JUVENTUD que recogerá mediante un proceso participativo las necesidades de la juventud de nuestro municipio. Es imprescindible realizar un diagnóstico de la situación junto con la propia juventud, para decidir conjuntamente cuáles son los pasos que se deben dar para dar respuesta a la necesidad de vivienda que al igual que otros sectores sociales tiene la juventud

### MOCIÓN

